



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **Irakasleen genero ikuspegia etorkizuneko bidea**

---

**GRADU AMAIERAKO LANA**

---

**EGILEA:** Bermejo Herran, Maialen

**ZUZENDARIA:** Kortabarria Cortazar, Lorea

**2020**

## LABURPENA

Generoa gizaki talde baten praktikak, sinesmenak, irudikapen eta agindu sozialen multzoa da, emakumeak eta gizonak desberdintzen dituen eta prozesu sozial baten bidez ematen dena. Prozesuan gizakiak, jaiotzen direnetik, genero rol eta estereotipo batzuk barneratzen joaten dira zenbait faktore sozialen eraginpean. Faktore sozial horien artean eskola dago, izan ere, genero identitatearen sorkuntza eskolan garaian ematen da batez ere. Irakasleek berebiziko garrantzia dute prozesu guzti honetan, genero rolen eta estereotipoen berproduzitzen laguntzen dutelarik. Horrenbestez, ezinbestekoa da irakasleek generoaren inguruko ezagutza eta formakuntza on bat izatea kontziente izateko, gelan landu ahal izateko eta ikasleen genero identitatearen eragin negatiborik ez izateko. Guzti hau ikertzeko, atal praktikoan Adoc erabili da, lan honetarako soilik sortu dena, eta guztira 89 irakasleek parte hartu dutena. Lan honen helburua irakasleen genero identitatearen inguruko ezagutzak, dituzten formakuntzak eta egiten dituzten lanketak jakitea izan da, hau guztia ikasleengan izan dezakeen eragin negatiboa aztertzeko. Azken emaitza, irakasleek gela barruan lantzen dutela baina aurretiko formakuntzarik izan gabe izan da.

**Hitz gakoak:** Generoa, genero identitatea, irakasleak, ezagutza eta formakuntza.

## RESUMEN

El genero es la practica, creencia, representación y mandato de un conjunto social, que divide lo masculino de lo femenino y se da mediante un proceso social. La persona desde su nacimiento va adquiriendo unos roles y estereotipos que vendrán impuestos por diferentes agentes sociales. La escuela es un agente social importante en este proceso, ya que esta presente en el la edad que el niño comienza a desarrollar su identidad de genero. Por lo tanto, el profesorado tiene un papel muy importante siendo uno de los agentes que transmite los roles y estereotipos de genero. Para ello es importante que el profesorado tenga una buena formación para poder ser conscientes del papel clave que tienen, y así evitar consecuencias negativas hacia el educando. Para ello, se ha llevado acabo un Adoc hecho expresamente para este trabajo, en el cual han participado 89 profesores, con el objetivo de saber qué conocimientos, qué formación y cómo es el trabajo que realizan con los alumnos para poder analizar los resultados negativos que puede conllevar eso en el alumnado. El resultado obtenido ha sido que, el profesorado trabaja el tema en clase pero sin una formación previa.

**Palabras clave:** Genero, identidad de genero, profesorado, conocimiento y formación.

# AURKIBIDEA

1. Justifikazioa	4
2. Marko teorikoa	5
2.1. Generoa eta sexua	5
2.1.1. Sexua	5
2.1.2. Generoa	6
2.2. Genero hitzaren bilakaera historian zehar	6
2.3. Estereotipoak	9
2.4. Generoaren eragina umearengan	10
2.4.1. Identitatea pertsonala eta genero identitatea	10
2.4.2. Identitate pertsonala	11
2.4.3. Genero identitatea	11
2.5. Genero identitatearen garapena	12
2.6. Genero identitatean eragina duten faktoreek	14
2.6.1. Familia	14
2.6.2. Berdinen arteko harremanak	15
2.6.3. Komunikabideak	15
2.7. Eskola	16
2.7.1. Curriculum ezkutua	17
2.7.2. Irakasleen eragina umeen genero identitatean	18
JUSTIFIKAZIOA ETA MARKO TEORIKOA LABURBILDUZ	20
3. Helburuak	21
4. Metodologia	21
4.1. Lagina	21
4.2. Datuak biltzeko tresna	22
4.3. Prozedura	22
4.4. Kategoriak	23
METODOLOGIA LABURBILDUZ	23
5. Emaizak	24
6. Ondorioak	29
EMAITZAK ETA ONDORIOAK LABURBILDUZ	34
7. Hobekuntza proposamenak	35
8. Bibliografia	37
9. Eranskinak	41

## 1. JUSTIFIKAZIOA

Txikitatik, gure identitatea bizi dugunaren arabera eraikitzen dugu. Gure ingurukoek eta gertakariak eragin handia daukate prozesu guzti horretan, izan ere, guk errealitatea hautemateko eta interpretatzeko modua da, identitatearen oinarria (Rocha, 2009).

Gizartetik datozen ideiak eta ohiturak inkontzienteki barneratzen dira eta horrekin batera identitate pertsonala eraiki eta genero identitatea garatzen da. Azken honen eraikuntzan, gizarte eragileek, kulturek eta ohitura zein jarrerak eragin handia daukate (Espinosa, 2000).

Horrez gain, kontuan hartzekoa da, haurtzaroan gizartearekin lotzen gaituena familia eta eskola direla. Bi horiek dira erreferentziazko gizarte eragileak. Ondorioz, bertan bizitako esperientzek berebiziko garrantzia du norbere identitatearen eraikuntzan. Zer esanik ez, honi sexua gehitzen badiogu. Sexuaren arabera, pertsonen jarrera besteekiko ezberdina izaten baita, horrek, genero identitatean eragina duelarik (Espinosa in Maccoby, 2000).

Aurretik esan bezala, irakasleek, izugarritzko eragina daukate ikasleen genero identitatean. Hau da, irakasleek daukaten jarrera, jokaera eta hitz egiteko moduak, berebiziko garrantzia izango du bakoitzaren genero identitatearen eraikuntzan (Menéndez eta Peña, 2003). Horrenbestez, berebiziko garrantzia dauka irakasleek formakuntza on bat izatea eta euren jarreraz eta izan dezaketen eragin negatiboaz kontziente izatea. Izan ere, irakasleak genero estereotipoen eta rolen transmititzaileak dira eta ikasleen erreferenteak direnez, genero identitatearen garapenean modu negatibo batean errez eragin dezakete (Anguita eta Torrego, 2009).

Baina zein punturarte daukate irakasleek eragina ikasleengan? Eta eragin horrek zein ondorio izan ditzake haurren garapen eta/edo bizitzan? Ezinbestekoa da honen inguruan ikertu eta kontzientzia hartzea. Finean, helburua, hauek era autonomoan heztea da eta ez adoktrinatzea. Baina nola egin guzti hori era orekatu batean eta kalterik suertatu gabe?

Gizartetik datozen desberdintasunak eta injustiziekin amaitzeko hezkuntza tresna paregabea da. Irakasleek horren kontzientzia hartu behar dute eta ikasleentzako eredu izan, irakasleek euren bizitza libreki eraiki dezaten besteak errespetatuz eta zainduz. Nelson Mandelak (1994) esan bezala “*La educación es el arma más poderosa para cambiar el mundo*” eta hori kontuan izanda bidezkoagoa den mundu bat eraiki behar da izaki bizidun guztiak libreki bizi eta sortu daitezen.

## 2. MARKO TEORIKOA

Ikerketa hau ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da generoaren inguruko zenbait kontzeptu ulertzea. Horrenbestez, marko teoriko honetan generoa eta hezkuntzak duten lotura eta irakasleen paperaren nondik-norakoak azalduta agertuko dira, irakurleak lana hobetu ulertu dezan.

### 2.1. Generoa eta sexua

Generoari buruz hitz egiten denean maiz sexu kontzeptuarekin nahasten da. Euren artean elkarlotura estua dute eta bata bestearik gabe ezin da ulertu (García-Leiva, 2005). Genero kontzeptuak faktore sozial eta kulturalekin bat egiten du eta sexua berriz, emakume-gizon banaketa biologikoarekin elkarlotzen da. Horrela beraz, ezinbestez faktore biologikoaren eta kulturalaren arteko elkarrekintza jarraia dagoela ulertu behar da; emakume-gizon dimorfismoak eta banaketa horrek dakarren produktu soziokulturala: maskulinitatea eta emetasuna (García-Leiva in Spence, Helmreich eta Stapp, 2005). Hala ere, sexua eta genero hitzek historian zehar aldaketa anitz izan dituzte eta autore ezberdinek modu desberdinetan definitu dituzte.

#### 2.1.1. Sexua

Munduko Osasun Erakundeak (OMS) (d.g.), sexua, gizakiak emakume edo gizonetan definitzen dituzten ezaugarri biologikoak bezala definitzen du. Argitzen du badaudela pertsona anitz dualismo honen barne aurkitzen ez direnak, eta hortaz, desberdintze biologiko honek pertsona hauek baztertuta uzten dituela.

Munduko Osasun Erakundeaz gain, bestelako autore ugari euren entsaioetan zein teorietan sexuari buruzko gogoetak egiten dituzte eta hitz hau definitzen saiatu dira. Gainera, argi uzten dute sexua eta generoaren desberdintasuna eta sexuak ezaugarri biologikoei mugatzen dela eta ez duela zerikusirik gizakien jarrerekin, hau da, alde soziologikoarekin ez daukala zerikusirik.

Horrela beraz, Ajamilek, Fuchsek y Luciniek (1990) sexu hitza horrela desberdindu zuten:

El término sexo se reserva para la descripción de la diferencia biológica (niveles genético, endocrino y neurológico), y no determina necesariamente los comportamientos. Es el conjunto de estructuras que, a través de todo el proceso de desarrollo sexual, configuran a la persona como un ser sexuado en masculino o femenino. La persona no nace sexuada, sino que se va haciendo sexuada en el transcurrir de su vida.

### **2.1.2. Generoa**

Genero hitza urteetan zehar modu anitzetan ulertua izan da. Hortaz, ez dago definizio zehatz bat generoa definitzeko orduan. Historian zehar autore desberdinak hitz hau definitzen saiatu dira.

Marta Lamasek generoari buruzko ikerketa sakonak egin izan ditu eta bere idatzi anitzetan generoak kulturarekiko daukan loturaren inguruan hausnartu du. Hortaz, berarentzako generoa gizaki talde baten praktikak, sinesmenak, irudikapen eta agindu sozialen multzoa da, emakume eta gizonak desberdintzen dituen bere anatomian oinarrituz. Saillapen kultural honek ez du soilik lanaren banaketa kontuan hartzen, izan ere, esparru soziala, politikoa, erlojiosoa eta eguneroko bizitza ere hatzen du kontuan (Lamas, 2000).

Lourdes Beneriak (2005), generoa sinesmen, ezaugarri pertsonal, jarrerak, sentimenduak, baloreak, portaera eta jardura multzoa dela dio, emakumeak eta gizonak desberdintzen dituen eta prozesu sozial baten bidez ematen dena. Gainera, prozesu honek pare bat ezaugarri dituela argitzen du. Alde batetik, prozesu historiko baten barne dagoela maila desberdinetan garatzen dena eta estatua, lan merkatua, eskola, komunikabideak, legea, familia eta erlazio interpersonalen bitartez sortzen dena. Eta beste aldetik, prozesu honek jardura eta ezaugarri hauen jerarkizazioa suposatzen duela maskulinitzat hartzen den guzti hori balio handiagoa izanik.

Azkenik, Subirats-ek(1994) generoa sexu bakoitzari inposatzen zaizkion arauak bezala ulertzen du, gizarte bakoitzak euren mesedetan sortzen dituen eta gizaki bakoitzak jaiotzetik izan eta egin behar dituen jokabideak, desioak eta ekintzak izanik. Laburbilduz, Simone De Beauvoir (1949) *Bigarren Sexuan* esaten duen bezala: “Una no nace, sino que se convierte en mujer”.

## **2.2. Genero hitzaren bilakaera historian zehar**

Generoa definitzerako orduan bakoitzak ikuspuntu bat erabiltzen du eta beraz, ez dago generoaren definizio bakarra, baizik eta definizio eta ikuspuntu ugari daude. Horrenbestez, hitz baten esanahia kodifikatu nahi dutenek alferrik daude, izan ere, hori egitea guda galdu batean sartzea da; hitzek, ideiak eta esanahi bat duen guztia bezala, historia dutelako (Scott, 1940). Horrela beraz, generoa ulertzeko historian zehar hitza nola ulertu izan den jakitea ezinbestekoa da.

Genero hitza ulertzeko ezinbestekoa dugu Ilustrazio garaia jotzea, hau da, XVII mendearen amaieratik XVIII mendearen zati luzera arteko garaia joatea. Garai honetan pentsalari desberdinak emakumearen eta gizonaren funtzioetan zer eskuratzen den eta zer dator berezkozat, naturalizat, eztabaidatzen hasiko dira. Bi korronte desberdin jaioko dira. Alde batetik, sexu bakoitzeko ezagutzak eta ohiturak jatorri biologikoa dutela esaten duen korrontea. Korronte hau defendatzen zutenak gehien bat medikuak eta filosofoak ziren, Pierre Roussel eta Cabanis beste askoren artean. Hauen ustez, emakumeen burmuina eta giharrak ahulagoak dira eta ez dira kapazak denbora luze batean lan egiteko. Hortaz, bere ustetan emakumeen eginkizuna euren espezie hobetu eta gizonezkoei zibilizazioa hobetzen uztea zen. Beste korrontea berriz, hezkuntza goraiatzeko zuten eta euren ustez hezkuntza gizartea eta gizartearen ohiturak eta jarrerak hobetzeko ezinbesteko tresna da (Puleo, 2013).

Argien mendean, ordea, helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea zen. Horrararako hezkuntza ezinbesteko tresnatzat jotzen zuten, autonomia lortzeko bide segurua izanik. Hala ere, Ilustrazioko pentsalariak euren ideiekin ez ziren guztiz koherenteak izan eta gehienek gizon hitza erabiltzen zuten mutilei zuzentzeko. Gainera, pentsalarien artean berdintasunaren kontrako ideiak zituztenak zeuden, Kant eta Rousseau hain zuzen ere. Kanten ustez, emakumeak biologikoki ez daude gaituak hezkuntza teorikoa jasotzeko. Rousseau berriz honako hau dio:

“Toda la educación de las mujeres debe referirse a los hombres. Agradarles, serles útiles, hacerse amar y honrar por ellos, educarlos de jóvenes, cuidarlos de adultos, aconsejarlos, consolarlos, hacerles la vida agradable y dulce: éstos son los deberes de las mujeres de todos los tiempos y lo que ha de enseñárseles desde la infancia” (Rousseau in Puleo, 2013).

Nahiz eta Ilustrazio garaian pentsatsaile nagusi gehienek gizonaren irudia gorensten zuten, horren aurka borrokatu zuten beste pertsonai ospetsu anitz ere egon ziren. Esate baterako Olimpia de Gouges, dramagilea eta pentsatsailea zena, zeinek 1791an *Declaración de los derechos de la Mujer y de la Ciudadana* idatzi zuen *Declaración de los derechos del Hombre y del Ciudadano* idazkiari erantzuteko nahian. Bestalde, Madame Lambert eta Mary Wollstonecraft-ek publikoki kritika zorrotzak egin zituzten gizartean emakumeak zeukan irudiaren inguruan (Alario, 2013).

Epainia mailan bi ilustratzaile garrantzitsu nabarmentzen dira. Jerónimo Feijóok bere antzerkiaren bitartez emakumearen eta gizonaren gaitasun intelektualen parekotasuna nabarmentzen zuen. Bestalde, Josefa Amar y Borbón, idazlea eta itzultzailea, zeinek

hezkuntza emakumeen ongizatea eta gizartearen ordena ekarriko zuela defendatu zuen (Alario, 2013).

XX mendean, genero hitzaren agerpena ekarriko du. 1949an Simone de Beauvoir genero hitza planteatzen hasiko da. Arestian esan bezala, *El Segundo Sexo* liburuan generoari erreferentzia egiten dion esaldi famatua idatzi egingo du: “Una no nace, sino que se convierte en mujer”. Liburu honen bitartez, gizarteari kritika egiten dio emetasun murriztaileagatik. Urte batzuk geroago, *Gender* terminoa agertuko da lehendabiziko aldiz John Moneyren, hermafroditismo kasuak aztertzen zituen ikertzailea, idazkietan. Horretaz gain, genero rol hitza ere agertuko da lehendabiziko aldiz emakume eta gizonen jarduteko, komunikatzeko eta mugitzeko formei erreferentzia eginez. Hala ere, zientzia biomedikoetan eta gizarte zientzietan genero hitza ez da erabiliko hurrengo hamarkadara arte (Puleo, 2013).

Hamarkada honetarte ez da sexua eta generoaren arteko desberdintasunak egingo eta maiz bi terminoak nahastuko dira. Robert Stoller psikoanalista izango da lehenengoa bi hitzak desberdinduko dituena. Izan ere, Stoller Money-ren ikerketak jarraituko ditu transexualitate kasuetan maskulinitatea eta emetasuna ikertzeko helburuarekin (Puleo, 2013).

60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran, mugimendu feministei esker genero hitza garatzen hasiko da. Mendebaldeko gizarteko mugimendu feministak genero hitza garatuko dute. Feministen nahia, emakume eta gizon egiten gaituena berdintasuna, gizarte prozesuak eta eraikuntza sozialak direla, eta ez sexu biologikoa aldarrikatzea izango da.

Genero kontzeptua beraz, eraikuntza sozial eta historiko bat bezala definitzen da, gizarteak jarrera, jokabide, balore eta beste rola batzuk sustatzen dituena eta jaiotzen garenetik neska edo mutilak garenen arabera inposatzen zaizkigunak. Momementu honetatik aurrera, feministek generoaren kategoria politikarekin elkarlotuko dute. Izan ere, zerbait kontzeptualizatzea zerbait hori politizatzearekin elkarlotzen da, hau da, errelitatea modu zuzen batean kontzeptualizatu behar da desperekotasunaren aurka borrokatu ahal izateko (Amorós in De Miguel, 2015).

Laurogeigarren urtean zehar genero gaiaren inguruan mugimendu feministak aurrera pausu bat egingo du eta generoaren kontzeptuari dimentsio kulturala eta multisoziala gehituko diote. Honen arrazoia, generoaren barne aurkitzen diren



desberdintasunak dira: maila soziala, arraza, etniak, jaioterri naturala eta historiakoa, aukeraketa sexuala eta familia eredu berriak (Martínez, 2005).

Gaur egun, generoaren inguruko ikerketak ugariak dira eta generoaren gaia geroz eta indar eta garrantzi handiagoa hartzen dihoa. Izan ere, aurretik esandakoaren ondorio argia gai hau agenda politikoen barne egotea da. Berdintasuna lortzeko estrategia diskriminazio positiboa da, munduko pertsona guztiak aukera berdina izan ahal izateko (Puleo, 2013). Berdintasun politika hauen artean honako hauek aurkitzen dira: 1999an Amsterdamen ospatutako bileran lortu zen hitzarmena Europar Estatuko herrialde guztien artean edo Espainia mailan 2007an Lege Organikoan jasotako eskubideak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortu ahal izateko (Ramírez, 2008) (Comisión Europea, 2007).

### 2.3. Estereotipoak

Estereotipoak eta genero estereotipoak konkretuki, Aguado eta Alfonsoren (2012) hitzetan honako hau dira:

Los estereotipos son modelos de actuación correctos asociados a un rol determinado, en una sociedad y en un momento dado. Por lo tanto, los estereotipos de género son un conjunto de creencias y conductas colectivas que se aplican artificialmente a hombres y a mujeres. Cada sexo debe cumplir un rol diferente que define las supuestas obligaciones y expectativas que se espera que cumplan ambas partes. Son comportamientos, actitudes y valores sociales establecidos para cada uno de los géneros.

Salasek (1997) gizartean finkotasunez mantentzen diren genero estereotipoak tabla batean bildu zituen:

<b>ESTEREOTIPOAK</b>	<b>MASKULINOA</b>	<b>FEMENINOA</b>
Gaitasunak	Inteligentzia, indarra, independentzia...	Afektibitatea, sentiberatasuna, ardura...
Baloreak	Agresibitatea, askonahia, minbera, boterea...	Apaltasuna, goxotasuna, ahultasuna...
Jokabideak	Estereotipo maskulinoa sendotzen jarraitzeko	Estereotipo femeninoa sendotzen jarraitzeko

	(Ezin dute negar egin, gizonek ez dute hori egiten...)	(Neskak ez dira zikintzen, ez egin hori hori mutilen gauza da eta!...)
Koloreak	Urdina	Arrosa
Espazioa	Esparru publikoa	Esparru pribatua
Sexu orientazioa	Heterosexuala (rol aktiboa)	Heterosexual (rol pasiboa)
Sexua	Maskulinoa	Femeninoa
Eginkizun biologikoa	Babesa	Amatasuna

## 2.4. Generoaren eragina umearengan

Gustoko izan edo ez, generoa pertsonen garapen indibidualean eta pertsonen gizarte harremanetan eragina duen ezaugarri trasbertsala da. Izan ere, gurasoek eta gertukoek umea izango dutenean egiten duten lehenengo galderetariko bat umearen sexu biologikoa da. Galdera horren atzetik ume horretatik espero diren jarrerak eta itxaropenak ezkututzen dira, jaio aurretik ume horren bizitza mugatuz (Espinosa in Maccoby, 2000). Horrela beraz, garrantzitsua da ulertzea generoa umeen bizitza zer nolako eragina duen eta nola eskuratzen doaz bai garapen psikologikoan bai sozialeari dagokionez. Era beran, garrantzitsua da ere ulertzea prozesu horrek gure identitate pertsonalean zer-nolako eraginak dituen, eta era berean, genero identitatearen eraikuntzan zeintzuk diren eraginak (Jayme, 1999).

### 2.4.1. Identitate pertsonala eta genero identitatea

Jaiotzen garenean bi talde nagusietan banatzen gaituzte: neskak edo mutilak. Handitzen garen heinean, gure burua eraikitzen goaz eta gizabanako bakarra eta gu bezalako inor ez dagoela ulertzen dugu, hau da, *self* existentziala sortzen dugu. *Self* existentziala sortu eta gero, *self* sexuala eraikitzen dugu, neska edo mutila garen esaten diguna, eta horrekin batera generoaren *self*-a garatzen dugu (Garcia-Leiva, 2005).

Atal hau ulertu ahal izateko ezinbestekoa dugu genero identitatea eta identitate pertsonala desberdintzea. Egia da, bi kontzeptu hauek elkarren artean lotura estua dutela eta umearen garapenean ia batera doazlea baina ezin dira guztiz nahastu.

### **2.4.2. Identitate pertsonala**

Munduko pertsona guztiek euren bizitzetan zehar bere buruko irudi mentala sortzen doaz. Horretarako pertsona eredu bat hartzen dute bere identitatea eredu horren arabera sortuz eta hori bere bizitzari zentzua emango dio eremu kognitiboan, emozionalean, jarrerazkoan eta afektiboan (Jayme, 1999). Besteekin harremantzea gainera, oso garrantzitsua da bakoitzaren identitatea eraikitzearen prozesuan, izan ere, gure burua besteekin ditugun harremanei esker ezagutzen dugu. Gure identitatearen eraikuntza gure ingurunea ezagutzearekin batera sortzen doa. Horrenbestez, errealitatearen ezagutza gure identitatearen eraikuntzan eragina izango du eta alderantziz, gure identitatea errealitatea nola pertsibitzen dugun moduan ere eragingo du (Rocha, 2009).

Identitate pertsonala lehenengo urteetatik sortzen hasiko da eta prozesu hau bizitzan zehar biziko diren esperientzen eta ikasketen arabera sortzen joango da, pertsonaren ingurunea berebiziko eragina izanik. Ingurunea azken finean, gizartea eta kulturaren eragina duen errealitatea erakusteko era da. Horrela beraz, gure identitate pertsonala ez dago gizarte-kultura kutsaduratik libre eta gizarte rolek berebiziko eragina dute identitate pertsonalean. Izan ere, bizitza sozialean parte hartzen dugu barneratu ditugun zenbait rol generoen arabera eta horrela jokatzeko dugu, hori baita gutaz espero dena eta (Jayme, 1999).

### **2.4.3. Genero identitatea**

Genero identitatea gure kulturaren emakume-gizon bezala ulertzen dena kontuan hartuz, bakoitzak bere burua zein generoaren barruan sailkatzen duen da (Garcia-Leiva in López, 2005). Hau da, pertsona batek genero kategoria zehatz bati dagokionez, dituen sentimendu eta pentsamendu multzoa da (Garcia-Leiva in Carver, Yungler eta Perry, 2003).

CEAR-ek (Comision de Ayuda al Refugiado) genero identitatea modu sakonago batean ikertzen du eta emakume-gizon dualismo hori apurtzen dituzten beste ezaugarri batzuk maiganeratzeko dituzte. Izan ere, elkarte honek baieztatzen du genero identitatea gizarteak generoaren inguruan sortutako ezaugarriak barneratzea datzala bakoitzak identifikatzen denaren arabera emetasun eta maskulinitate oinarritzat hartuz.

Era berean gainontzen dute, emakume edo gizon sentitzearen sentimenduaz gainera normalizatuak ez dauden bestelako identitateak daudela, hala nola, transexualitatea edo transgeneroa. Identitate hauek kolokan jartzen dute urte luzez bi mailetan soilik desberdindutako aurkakoak eta bakarrak izan diren bi genero kategoriak. Beraz, identitate generoak eskaintzen duen aniztasuna sexu-genero binomioarekin apurtzen du eta gorputz batek izan ahal dituen aldagai fisiko, psikologiko eta sozialak azpimarratzen ditu beste ikuspuntu anitzago bat eskainiz (CEAR, d.g.).

## **2.5. Genero identitatearen garapena**

Identitate pertsonala bi maila ezberdinak dituela esan daiteke. Alde batetik, lehenengo mailako identitatea, hau da, autokontzeptuarena- nia edo self deitzen dena- eta beste aldetik, bigarren mailakoak, modu jarraitu batean eskuratzen joaten direnak eta gizarte rolekin, genero rolekin (lanbidea, familia daukan papera eta abar), zerikusi handia dutenak (Jayme, 1999). Lehenengo mailako identitatea beraz, faktore kognitiboak ditu eta pertsonak modu kontzeinte batean eskuratzen ditu (Jayme in Fierro, 1999). Bigarren mailakoak aldiz, zerikusia dute gizabanako bakoitzak indibidualki generoa nola bizi duenarekin (Jayme in Sau, 1999). Hau da, pertsona batek genero batekin identifikatzen den momentuan, gizarte eta kultura esartzen dizkion genero horren rolak betetzen hasiko da; gizon sentitzen bada gizonen rolak betez eta emakumea sentitzen bada emakumezkoen rolak betez (Jayme, 1999).

Gai honetan zentratzen diren ikerketei erreferentzia eginez, ume batek gizarte eta kultura zehatz batean neska edo mutila dela nola ikasten duen prozesuan hiru ezaugarri garrantzitsu daude: genero kontzeptuaren garapena, genero rolak edo estereotipoen garapena eta genero jokera tipifikatuaren garapena (Morrison eta Shaffer, 2003).

Genero identitatearen garapenean lehenengo urrats ebolutiboa genero kontzeptuaren garapena da. 2 eta 3 urte bitartean, umeek, “modu zuzen batean” bi generoen artean bat aukeratzen dute, horrela adieraziz genero horrek dakarren konpoko ezaugarrien bitartez, hau da, arropa edo orrazteko eraren bitartez besteak beste. Haur Hezkuntzako etapan, 3-5 urte bitartean, pentsatzen dute neska edo mutil izatea ez dela betirako eta aldatzen joaten dela. Lehen Hezkuntzara heldu arte ez dute ulertuko neska eta mutil izatearen ezaugarria berezkoa dela eta ez dela aldatzen denboran zehar. Gainera, etapa honetan neska eta mutila izatearena ez da ulertuko arropa edo orrazteko eraren arabera, baizik eta sexu biologikoaren arabera desberdintzen dela ulertuko dute (Espinosa, 2000). Money-k afimartzen duenez, umea 18 hilabete dituenean bere genero identitatea finkatzen du gizarte eta faktore biologikoak direla eta (Puleo, 2013).

Gezurra badirudi ere, umeek genero identitatea eskuratzen duten bezain laster genero estereotipoak ere eskuratzen eta barneratzen hasten dira. Izan ere, 2 eta 3 urte bitarteko neska eta mutil guztiak genero estereotipoez kontziente dira eta ikerketa asko egiaztatu duten bezala, urte hauetan duten estereotipoak antza handia dute helduaroan ditugunekin. Genero estereotipoen eskuratze azkarraren zergatia, umeek mundura heltzen diren momentutik generoaren arabera ematen zaien tratu desberdinagatik da, izan ere, ume bat jaiotzen denean sexu biologikoaren arabera itxaropen eta aukera desberdinak izango dituzte. Honi gehitu behar diogu, bizitza sozialeko esparru desberdinetan, estereotipo eta rol hauek umeen haurtzaroean eta nerabezaroan indartzen eta berproduzitzen joaten direla (Espinosa, 2000). Serbin, Powlishta eta Gulko (1993), umeen genero estereotipoak indartzea eta berproduzitzearen faktore nagusienak umearen gertuko ingurune sozialak direla diote, kasu honetan familia eta irakasleak.

7 eta 12 urte bitartean, umeek pentsatzen dute emakumezkoak ahulak, sentiberak, onak, ulertzeko zailak eta maitagarriak direla eta gizonezkoak berriz, oldarkorrek, asertiboak, handinahikoak eta menderatzaileak. Urte hauetan kritika zorrotzak egiten dituzte rol generoen nahasteei, mutilek egiten badituzte batez ere. Honek esan nahi du mutilek maskulinitate rola betetzeko gizarte presio handiagoa dutela eta gainera, rol femeninoa gaizki baloratuta eta ikusia dagoela (Jayme, 1999).

Nerabezaroan genero malgutasun bat emango da eta genero identitatea berreraikitze momentua izango da. Gainera, etapa honetan ebolutiboki gaitasun handiagoak dituzte eta mundua eta bere burua hobeto ezagutzen dute. Honek eragingo du sexualitatearen ezagupenean besteekin harremantzearen garrantzia ikustea eta familiak euren bizitzen erdigunea izaten uztea. Jakina denez, nerabezaroan aldaketa hormonalak direla medio, gorputzetan aldaketa batzuk ekartzen ditu eta horrela beraz, nerabeak beste gorputz formak barneratzen hasiko dira. Itxura fisikoak berebiziko garrantzia izango du besteekin erlazionatzeko orduan (Jayme, 1999).

Genero tipifikatuko jokabideen garapena ere oso azkar ematen den prozesua dugu. Izan ere, ikusi daiteke nola 2 urteko umeak bere sexu berdineko umeekin jolasten hasten dira; neskak neskekin eta mutilak mutilekin. Denbora aurrera joan ahala lehentasun hauek handitzen joaten dira eta 10-11 urteekin jada bere rol generoekin bat ez datorren umea baztertzten hasten dira (Espinosa in Kovacs, Parker y Hoffman, 2000).

## **2.6. Genero identitatean eragina duten faktoreek**

Gure gizarteratze prozesuan balore eta jokabide zehatz batzuk ikasten goaz. Gizarte-eragile desberdinak jokabide eta balore hauek transmititzeaz arduratzen dira eta patriarkatuaren genero rola eta estereotipoak berproduzitzea eta sendotzea eragiten dute (Espinosa, 2000). Horrela beraz, hurrengo parrafoetan eragile hauek zeintzuk diren eta umeengan duten eragina azalduko da.

### **2.6.1. Familia**

Ume baten lehenengo gizarte eragilea bere familia izango da eta umearen identitate pertsonalaren eraikitze prozesuan familiak pisu handia izango du. Ume baten lehenengo influentziak bere jaio eguna baino aurretik hasiko dira, gurasoak sexua jakin bezain laster dena prestatzen hasten direlako (Umearen logela apaintzen, arropa erosten edo jolatailuak erosten umearen sexuaren arabera) (Torres, d.g.).

Hauek izango dira Emakunderen (2008) hitzetan familiaren eragina genero estereotipoen transmisioan:

1. Gurasoek sexuaren arabera umearengan itxaropen zehatz batzuk izango dituzte. Neska bada lasaia eta gozoa izatea espero dute eta mutila bada mugitua eta aldakorra izatea espero dute. Gurasoek jokabide berdinen aurrean, modu inkontziente batean, desberdin jokatu dute sexuaren arabera.
2. Alaba edo semea desberdin hartzen dute. Sexuaren arabera ahozko komunikazioaren edo keinuen bidezko komunikazioaren bitartez ezberdin baloratzen da. Hau da, neskei edertasunarekin erlazionatutako hitzak esaten zaizkie (“Ze guapa zauden”, “Nire printzesa”...) eta horrekin batera laztanak ematen zaizkie, emetasunarekin zerikusi handiak dituztenak. Mutilei, ordea, maskulinitatearekin erlazio handia duten hitzak esaten zaizkie (“Irabazle!”, “Ze azkarra den nire mutila!”...), maskulinitatearekin zerikusia duten estereotipoak azpimarratuz. Ahozko komunikazioari gehitu behar zaio umeak sexuaren arabera janzten dituztela. Hau da, neskak dotoreak eta ederrak joaten dira gonekin eta soinekoekin eta mutilak, aldiz, erosoak diren arropekin jolasteko eta zikintzeko aukera ematen dietenak.
3. Familiak bikote harremanetan eragin handia dute ere. Izan ere, umeek denbora goiztiar batetik hasten dira bikote harreman erreproduzitzen. 3 eta 6 urte

bitartean ohikoak diren egoerak erreproduzitzen dituzte helduek egiten duten bezala. Horregatik gurasoak euren ispilua izango dira eta eurengan jarriko dute atentzioa: nork egiten dituen etxeko gauzak, nola eta zertaz mintzatzen diren, nola jokatzeko dute eta abar luze bat.

### **2.6.2. Berdinen arteko harremanak**

Berdinen arteko harremana umearen formakuntza pertsonalean eta autoezagutzan oso ezaugarri garrantzitsua da. Talde batean egotea eta talde horren barruan sentitzea autoestimaren handitzea ekartzen du. Mutilek emakumezkoekin zerikusia duten jarduerak egitea edo neskek gizonezkoekin zerikusia duten jarduerak egitea, taldetik kanporatua izatea edo besteengandik aurpegi txarrak jasotzea ekartzen duela barneratzen dute. Horrenbestez, beste sexuarekin zerikusia duten gauzak egiteari uzten diote eta bere identitatea ondo ikusita dagoenaren arabera eraikitzen joaten dira (Espinosa, 2000).

Nerabezaroan taldea oso faktore garrantzitsua bihurtzen da eta taldearekin denbora anitz ematen dute. Era berean, talde horretan lagun minak egiten hasiko dira eta eurekin bere zalantzak, kekek, arazoak eta abar konponduko dituzte euren artean ondo ulertzen direlako (Espinosa, 2000).

### **2.6.3. Komunikabideak**

Azken hamarkadan komunikabideak emakume eta gizonen estereotipoen hedatzaileak izan dira, telebista indar handiena duena izanik. Umeei egunean zehar ordu ugari ematen dituzte telebistaren aurrean eta beraz, iragarkietan agertzen diren genero estereotipo guztiak inkontzienteki barneratzen joaten dira (De Miguel, 2015).

Iragarkietan eta pelikuletan zein marrazki bizdunetan agertzen diren gizonen irudikapena etxeko gizonarena da, etxetik kanpo lan egiten duena, kirolaria dena eta maila sozial altua duena bere familia zaindu ahal izateko. Emakumea aldiz, emakume argala, kirolaria, baina emakumezkoen kirol egiten dituen, etxeko andrea eta bere gizona maite eta errespetatzen duena (De Miguel, 2015).

Azkenik, garrantzitsua da aipatzea gaur egungo gizartean internetek ume eta nerabeengan daukan eragina. Komunikatzeko modu berri bat da eta aukera paregabea bihurtu da. Izan ere, gazteek internet eta sare sozialen bidez bere espazio pertsonala eraiki dezake, besteekin komunikatu ahal dira eta informazioa partekatu dezake. Hala

ere, aurrerapen guzti honek bere alde txarra dauka ere. Umeez eta gazteek bere intimitatea galtzen dute eta besteen eskuetan gelditzen da (Estébanez y Vázquez, 2013).

Sare sozialeen bidez, neskek bere emetasun modeloa berproduzitzen dute eta onartze soziala lortzeko asmoarekin bere buruari arropa gutxiarekin argazkiak egitea ohikoa da. Honek eragin dezake, genero indarkeria jasatea edo interneten bidezko bullying-a (Estébanez y Vázquez, 2013). Mutilen kasuan egoera antzekoa da baina hauek ez dute ia bere gorputza erakusten ez baitute behar gizartearen onospena ondo sentitzeko. Mutilak ez dute bere sentimenduak adierazten eta partekatzen duten ia guztia kirolarekin zerikusia dauka. Gainera, mutilen artean pornografia eta emakumearen gorputz sexualizatuak partekatzea ohikoa da internetek jartzen dituen errezitasunak direla eta (Estébanez y Vázquez, 2013).

## **2.7. Eskola**

Genero identitatea beraz, bi moduetan garatu daiteke; gizartetik inposatzen diren ezaugarriak errepikatuz eta barneratuz edo bakoitzak bere burua non eta nola kokatzen duen erabakiz. Hala ere, umeei neska edo mutil papera bete behar dutela azpimarratzen zaie gizartean onartuta egon ahal izateko. Hau da, umeez neska edo mutil rolak arazo gabe onartzen dituzte, identitate koherente eta bateratu bat eraikiz gizartetik inposatzen zaien bezala. Gainera, bi taldeetan banatzen zaie, neskek eta mutilak, kontrakoak eta bateraezinak direnak, geroago emakumeak eta gizonak izateko. Honen eraikitzaile nagusiak gizarte eragileak (Komunikabideak, eskola, familia...) dira umeez genero estereotipoak behin eta berriz errepikatzeaz arduratzen direnak. Horrela beraz, eskola, familiarekin batera, genero estereotipoen erreprodukzioan indar handia dauka, izan ere, umeen lehehengo urteetan sozializazio esparru nagusietariko bat da (Menéndez eta Peña, 2009). Santos (2002) hitzetan:

La escuela actúa como mecanismo de reproducción social, económica y cultural.  
Dentro de las pautas de reproducción se encuentran las de carácter patriarcal,  
propias de nuestra cultura androcéntrica.

Eskolaren esparru ezberdinetan genero estereotipoak ematen dira umearen genero identitatean eragina dutenak. Sandra Ackerren (1995) hitzetan eskolak generoa berproduzitzen du ezaugarri desberdinak erabiliz, hala nola, uniformeak, jolastokiak eta gelak, curriculumak edo irakasgaiak (Acker in Jayme, 1999). Ikerketa anitzek eskolan ematen diren genero estereotipoen erreprodukzioaren inguruan hausnartu izan dute baita honek ikasleen genero identitatean daukan eraginean ere. Eskola liburuetan



mutilen presentzia neskeen presentzia baino askoz handiagoa da eta mutilen kasuan eraikuntzekin, logikarekin edo jarduera fisikoko gaiekin agertzen dira. Nesken kasuan aldiz, artearekin, sentimenduekin edo etxeko gauzekin lotura duten gauzetan irudikatuta agertzen dira. Ikertu den bestelako esparruak gela eta jolastokia izan dira. Bertan ikusi da mutilek neskak baino espazio handiagoa hartzen dutela eta bi esparru hauetan ematen diren jarrerak generoarekin elkarlotzen direla (Menéndez eta Peña, 2003).

### **2.7.1. Curriculum ezkutua**

Eskolak ikasleengan eragin handia dauka eta ikasle bakoitzari maila desberdinetan eragiten dio. Eraginetako bat curriculum esplizituak eskaintzen dituen ezaugarriak dira, hau da, helburuak, konpetentziak, edukiak eta ebaluazio irizpideak dira. Hauek lantzen dira ikasturte amaieran ezartzen diren helburuak lortu ahal izateko (Santos, 2002). Gainera, irakasleek curriculum esplizituari garrantzi handia ematen diote. Izan ere, saioetan curriculum esplizituari dagokionez lortu diren emaitzei soilik erreparatzen diote, curriculum hau ikasleek ikasten dutenaren alderdi bakarra ez bada ere (Tinning, 1992).

Era beran, irakaskuntzan planifikatzen ez diren bestelako ezaugarriak irakasten dira esplizituak ez direnak eta inkontzienteki agertzen direnak (Santos, 2002). Ezaugarri horiek, curriculum ezkutuaren barne agertzen dira eta curriculum ezkutuak daukan eragina, maiz, curriculum esplizitua daukana baino askoz handiagoa izaten da. Curriculum ezkutuaren barne dauden ezaugarriak planifikatzen diren irakaskuntza prozesu guztietan agertzen dira (Tinning, 1992). Eduki hauek ez daude inon idatzita eta gizarte harremanen bidez, irakasle-ikasle harremanaren bidez, transmititzen dira gehien bat (Acaso eta Neure, 2005).

Azken finean, curriculum ezkutua erakunde bateko estrukturan eta funtzionamenduan agertzen diren arau, ohitura, sinesmen, hizkuntza eta simbolo desberdinen multzoa da. Erakunde horietako bat eskola da eta eskolaren kasuan curriculum ezkutua modu inkontziente batean transmititzen eta hautematen den guzti hori da (Acevedo, 2011).

Curriculum ezkutuaren helburu gorena, curriculum esplizituaren bitartez egokiak ez diren edukiak transmititzea da. Hau da, curriculum ezkutuaren diskurtsoaren barnean erakundearen boterea, gizarte-maila, arraza, genero, kultura eta erlijio baten defentsa agertzen da modu ezkutu batean (Acaso eta Neure, 2005).

Tinning (1992), curriculum ezkutua lau gai desberdinetan banatu zuen eta horietako bat *Sexismo y educación física* izenburu jarri zion. Tinning-ek Gorputz Hezkuntzan

zentratu arren, bertan idatzita dagoena eskolako edozein espazio zein irakasgai desberdinetara aplikatu daiteke. Izan ere, irakasleak modu inkontziente batean, ikasleengan sexuaren arabera espero diren jokabideei eta ezaugarriak betetzea espero du, gizarte patriarkalaren eredia bizirik mantenduz. Horrela beraz, irakaslea bere jokabidearekin, maiz, gizarteak eta kulturak esartzen dituen genero estereotipoak betetzea bermatzen du.

Tinning-ek (1992), unibertsitateko irakasleek egiten zuten praktikei bereziko garrantzia ematen zien. Bere hitzetan, unibertsitatean praktikak egiterako orduan, irakasle batek daukan eragina aztertzeko eta hausnartzeko aukera eman du. Praktikei esker, irakasleek dituzten jarrerak ikusi daitezke eta horiek modu kritiko batean hausnartu daitezke. Gero, Practicum lanean egiten diren hausnarketa, gertaera adierazgarriak hain zuzen ere, eta behaketa idatziak irakasleentzako formakuntzarako baliogarriak dira, baita izandako jarrerak modu kritiko batean hausnartzeko ere. Horrela, jarrera horiek berproduzitzea ekiditu egingo da eta etorkizuneko irakasleek jarrerak modu kritiko batean hausnartzeko erraztasun gehiago izango dute (Tinning, 1992).

### **2.7.2. Irakasleen eragina umeen genero identitatean**

Eskolaren barnean irakasleak subjektu garrantzitsuenetarikoak dira eta irakasle-ikasle harremanak kontuan hartu beharreko irizpide esanguratsuak dira. Harreman hauen bitartez, irakasleek genero estereotipoak transmititzen dituzte, neska eta mutilekin ezberdin jokatzuz eta ikasleak horretaz jabetuz (Menéndez eta Peña, 2003).

Arestian esadakoarekin bat, sexuaren arabera irakasleek ikasleekin elkarrizketa bat eduki nahi dutenean desberdin jokutzen dute. Izan ere, irakasleek neskak agurtzerako orduan beti bere soineko politari, ileari edo edertasunarekin zerikusia duen guztiari egiten diete erreferentzia. Mutilen kasuan berriz, azken azterketan izandako notari, bere futbol taldearen emaitzari edo horrekin erlazioa duen gauzei egiten diete erreferentzia (Santos, 2002).

Ilido beretik jarraituz, irakasleek arazo baten aurrean desberdin jokutzen dute nesken edo mutilen arazoa dela ikustean. Neskak arazo bat dutenean, normalean, irakasleek garrantzia kentzen diete neskak kexatiak, beldurtiak eta beti laguntza eskatzen daudelako (Tomé, 2010).

Genero transgresioei dagokionez, irakasleek, generoaren arabera ikasleei modu desberdinetan tratatzen eta zigortzen dituzte. Hau da, neska batek genero maskulinoko

ezaugarriak baditu hobeto ikusten dute alderantziz bada. Mutilek genero femeninoa ezaugarriak dituztenean, maiz, irakasleen artean oso kritikatu da eta mutil horrenganako jokatzeko modua oso desberdina izaten ohi da. Era berean, irakasleak ikasleen generoa eta sexua bat datorrela hantzematean ikaslearekin modu inkontziente batean harreman handiagoa izango du (Tomé, 2010).

Bestalde, irakasleek itxaropen ezberdinak dituzte umeengan bere sexu biologikoaren arabera eta umei horrela transmititzen zaie. Horrek azken finean umearen genero eraikuntzan ere eragina izango du. Umei normalean gauzak bat lortuko dutela eta hori lortzeko gai direla animatzen zaie. Hala ere, aurretik esandakoa, inkontzieteki irakasleak neskei edo mutilei modu desberdinetan transmititzen die. Izan ere, irakasleek mutilak zientzietako eta jarduera fisikoko irakasgaietan neskak baino kapazagoak direla barneratuta dute eta ikasleei horrela transmititzen diete. Artearekin zerikusia duten irakasgaietan, aldiz, mutilak neskak baino askoz traketsagoak direla uste da. Horrela beraz, ikaslea irakasleak transmititzen diona barneratzen eta sinisten du irakasleak ume horrengandik espero duena errealitatean gertatuz (Menéndez eta Peña, 2005).

Horrelako jarrerak ohikoak dira eta modu inkontziente batean egiten dira curriculum ezkutua honen eragile handienetarikoa izanik. Gainera, ikertu egin da irakasle gehienek ez dutela generoaren inguruko inolako formakuntzarik jaso eta ondorioz, irakasle gehienek pentsatzen dutela generoaren gaia lantzea ez dela beharrezkoa eta emakume eta giznon arteko berdintasuna duela asko lortu zela (Anguita eta Torrego, 2009).

Horrela beraz, garrantzitsua da irakasleek kontzientzia hartzea eta gaiaren inguruan formakuntza jasotzea. Horrek Hezkuntza Fakultateen konpromesua eta ikasturteko programazioetan unibertsitateko irakasleek generoaren trataerari buruzko gaiak gehitzea eskatzen du (Anguita eta Torrego, 2009). Ezinbestekoa da beraz, ikasturteko programazioan emakumezkoen inguruako materialak gehitzea, baterako hezkuntzaren nondik-norakoak irakastea, feminismoaren inguruko ikerketak sortzea eta ikastea beste tresna eta gai askoren artean. Gai teorikoek ez dute praktika eraldatuko baina bai ikuspegi kritikoa sortuko dute eta horrek praktikan gertatzen denarekin kontzienteagoak izatea ekarriko du etorkizuneko irakasleen jarrerak aldatuz (Bolaños eta Jimenez, 2007). Horrenbestez, irakasleen jarrerak ez dute umeen genero identitatean eragin negatiborik izango eta eurekin lanketa esanguratsu bat egiteko kapazak izango dira, ikaslea modu aske batean hezten dela bermatuz (Muñoz eta Cortes, 2007).

Laburbilduz, formakuntza on bat zenbait tresna ezberdinak izatea eta klasean landu ahal izateko aukera ematen du (Bolaños eta Jimenez, 2007). Baina prozesu eraginkorrena ikasteko, praktikan jartzen dugun hori hausnartzea eta modu kritiko batean behatzea da gero etorkizunean izandako jarrera zuzendu ahal izateko (Alcaraz eta Padilla, 2004). Horrekin batera, azpimarratzekoa da, formakuntza guztiak bezala, hau ere etengabekoak izan behar dela eta dena ez dela ikasten aldi batean eta betirako (Santos, 2002).

## **JUSTIFIKAZIOA ETA MARKO TEORIKOA LABURBILDUZ**

Generoa sinesmen, ezaugarri pertsonal, jarrerak, sentimenduak, baloreak, portaera eta jardura multzoa da, emakumeak eta gizonak desberdintzen dituen eta prozesu sozial baten bidez ematen dena (Benería, 2005). Gizartetik datozen ideiak eta ohiturak inkontzienteki barneratzen dira eta horrekin batera identitate pertsonala eraiki eta genero identitatea garatzen da. Azken honen eraikuntzan, gizarte eragileek, kulturek eta ohitura zein jarrerak eragin handia daukate. Ideiak eta ohitura horiek genero estereotipo eta rolen bidez bermatzen dira eta gizarte eragileek berebiziko garrantzia dute hauen barneratze prozesuan (Espinosa, 2000).

Eskolak, gizarte eragilea izanda, genero identitatea garatzen den momentu garrantzitsuenean aurkitzen da. Izan ere, 7-12 urte bitartean genero estereotipoak indartzen eta finkatzen dira (Jayme, 1999). Irakasleak genero estereotipo hauen transmititzaile dira eta hortaz, paper oso garrantzitsua jokatzen du umearen genero identitatearen sorkuntzan (Anguita eta Torrego, 2009). Horrela beraz, ezinbestekoa da irakasleek kontzientzia hartzea eta gaiaren inguruan formakuntza jasotzea. Formakuntza on batekin, irakasleek ikuspegi kritikoa sortuko dutelako eta horrek praktikan gertatzen denarekin kontzienteagoak izatea eragingo duelako (Bolaños eta Jimenez, 2007). Horrenbestez, irakasleen jarrerak ez dute umeen genero identitatean eragin negatiborik izango eta eurekin lanketa esanguratsu bat egiteko kapazak izango dira, ikaslea modu aske batean hezten dela bermatuz (Muñoz eta Cortes, 2007).

### 3. HELBURUAK

Hona hemen Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusiak:

1. Genero identitatearen inguruan irakasleek duten ezagutza maila aztertzea.
  - 1.1. Irakasleek genero identitatea modu aske batean eraikitzen den edo ez ikustea.
  - 1.2. Irakasleek nori egozten diote generoaren identitate libreki ez eraikitzea ikertu.
2. Irakasleak genero identitatearen inguruan formatuak dauden ezagutu.
  - 2.1. Formakuntza maila irakasleen esperientzia mailarekin bat datorren aztertu.
3. Irakasleak genero identitatea beraien ikasgaietan lantzen duten edo ez aztertu.

Aurreko helburuak kontuan izanda, ondorengo hipotesiak planteatzen dira:

1. Genero identitatearen inguruan irakasleek ez dute ezagutza handirik.
  - 1.1. Irakasleek badakite genero identitatea ez dela libreki sortzen.
  - 1.2. Irakasleek eskolari egozten diote genero identitatea libreki ez eraikitzea.
2. Irakasleek genero identitatearen inguruan ez dute formakuntza aipagarririk jaso.
  - 2.1. Esperientzia gutxiko irakasleek formakuntza gehiago dute genero identitatean.
3. Irakasleek ez dute genero identitatea bere ikasgaien barruan lantzen.

### 4. METODOLOGIA

#### 4.1. Lagina

Ikerketa hau aurrera eraman ahal izateko eskola batean eginkizun handiko eragileak diren langileak kontuan hartu izan dira, hau da, irakasleak.

Ikerketa hau burutu ahal izateko, irakasle anonimoak hartu dira kontuan eskola, esperientzia eta espezialitate desberdinetakoak. Guztira, Lehen Hezkuntzako 89 irakasle hartu dute parte. Sexuari dagokionez, 89 irakasle horietatik 22 gizon, 63 emakume eta 4 zehaztu gabeak dira. Irakasleen artean tutoreak, plastikako irakasleak, musikako irakasleak, koordinatzaileak, PTak, ingeleseko irakasleak, gorputz hezkuntzako irakasleak, praktikan egondako ikasleak eta beste motatako eginkizunak dituzten irakasleak parte hartu dute, irakaskuntzan esperientzia urte ezberdinak dituztelarik. Izan ere, parte hartzaileen artean ehuneko handi bat (%79,8) irakaskuntzan

duela gutxi (0-5 urte) hasitako irakasleak dira, irakasle kopuru txiki batek (%9) urte nahiko (5-10 urte) hasitako irakasleak dira eta beste ehuneko gutxi batek (%11,2) esperientzia handiko (15 urtetik gora) irakasleak dira.

#### **4.2. Datuak biltzeko tresna**

Lan edo ikerketa hau aurrera eraman ahal izateko tresna metodologiko kuantitatiboa erabili da, inkesta tresna oinarri gisa hartuz. Inkesta prestatzeko, gradu amaierako lan honen helburuak kontuan hartu dira eta galderak kategoria ezberdinetan banatu izan dira.

Alde batetik, inkesta sortzeko Google Driveek eskeintzen duen inkestak egiteko aplikazioa erabili da. Adoc hau, lan honetarako soilik sortu eta erabili da. Inkestan guztira 12 galdera aurkeztu dira eta galdera bakoitzeko erantzun itxiak aukitu daitezke (Ikus 9. atala: Eranskinak, 41 or.). Hasierako bi galderetan esperientzia maila eta aurtengo ikasturteko lan postua galdetu egin zaie datu orokorrak biltzeko helburuarekin. Hurrengo galderak, irakasleen genero identitateari buruz duten ezagutza mailak aztertzeko eta jaso duten formakuntzei buruz informazioa biltzeko galderak formulatu zaizkie. Formakuntzarekin batera, klasean genero identitatea lantzen duten edo ez eta eskolak laguntzak ematen dituen edo ez galdetu egin zaie. Azkenik, desehabilitate soziala ekiditzeko nahian, galdera batzuk planteatu dira inkesta ahalik eta baliagarritasun handiena izan dezan.

#### **4.3. Prozedura**

Lehenengo, Google Drive aplikazioa erabiliz, inkesta sortu da. Inkesta edukita, gaur egungo erabiltzen diren sare sozialak eta komunikatzeko modu berrietatik baliatuz, mezu batekin erantsita (Ikus 9. atala: Eranskinak, 45 or.), inkesta irakasle desberdinei pasatu da. Facebook, Whatsapp eta Gmail erabili izan dira inkesta pertsona zein kolektibo desberdinei bidaltzeko.

Prozedura eta irakasle desberdinei inkesta elaraztea prozesu erraza izan da gaur egun momentu oro konektatuta zaudelako eta gauzak berehala leku batera eta bestera heltzen direlako. Bi astetan lagin nahikoa zegoen ikerketa ondo burutu ahal izateko.

Ikerketarako lagin nahikoa parte hartu zuenean, Google Drivetik inkesta eten zen eta erantzunak grafikoen bidez ikustearekin batera, ehunekoetan eta erantzun kopuru zehatzetan ikusi ahal nuen. Gainera, Google Drive on-line denez, momentu guztietan inkesta, eta horrekin betara erantzunak, begiratzeko aukera ematen du.

#### 4.4. Kategoriak

Aurretik aipatu den bezala inkesta sortzeko kategoria desberdinetan banatu da, gradu amaierako lan honen helburuak kontuan hartuta. Inkesta eranskinetan izan arren (Ikusi.....), hona hemen bi kategorien izenak eta kategoria bakoitzaren barnean egin izan diren galderak:


##### 1. EZAGUTZA

6. Uste duzu txikitatik gure genero identitatea libreki eraikitzen dela?
7. Umearen genero identitatearen eraketan eragile sozial desberdinek eragin handia dute. Hauen artean zein uste duzu dela eragin handiena duena?

##### 2. LANKETA ETA FORMAKUNTZA

8. Klasean gaia lantzen duzu?
9. Gaia lantzeko formakuntza nahikoa jaso duzula uste duzu? (Unibertsitatean, EJ ematen dituen formakuntzetan...)
10. Eskolak gai honen inguruan lan egiteko tresnak eskaintzen ditu? (Sexologia tailerrak umeentzako, gurasoentzako formakuntzak, irakasleentzako formakuntzak...)

#### METODOLOGIA LABURBILDUZ



## PROZEDURA

Sare sozialak eta komunikatzeko modu berriak erabili dira inkesta bidaltzeko (Facebook, Whatsapp eta Gmail). Bigarren asterako lagin nahiko zegoen eta emaitzak bai grafikoki bai zenbakien bidez aztertu ziren. Google Drive eskaintzen duen inkestak sortzeko tresnari esker, emaitzak momentu oro ikusi ahal nituen.


## 5. EMAITZAK

Ikerketa hauen emaitzak aztertzeko bi azpigaietan banatuko da, hobeto aztertu eta ulertu dadin. Lehenengo azpiatala ezagutza izango da, non 1, 1.1. eta 1.2. helburuak aztertuko diren. Bigarren atalean aldiz, lanketa eta formakuntza izango da eta 2, 2.1., eta 3 helburuak ikertuko dira (Ikus 3. atala: Helburuak, 21 or.).

### 5.1. Ezagutza

6. Uste duzu txikitatik gure genero identitatea libreki eraikitzen dela?

89 respuestas




Grafikoa 1: Generoaren sorkuntza

Grafiko honen bitartez, irakasleek generoa libreki eraikitzen dela edo ez galdetu zaie, gai honen inguruan euren jakituria ezagutzeko helburuarekin. Laginaren %84,3ak ezetz erantzun du, %11,2ak baietz erantzun du eta aldiz, ez dakitela %4,5ak erantzun du. Ez dakitelaren ehunekoak adierazgarria da, izan ere, terminologia ulertzen ez dutela edo gaiaren inguruan inolako formakuntza eta interesik ez dutela adierazten du.



7. Umearen genero identitatearen eraketan eragile sozial desberdinek eragin handia dute. Hauen artean zein uste duzu dela eragin handiena duena?

89 respuestas




Grafikoa 2: Gizarte eragileak

Grafiko honetan eragile sozialen artean umeen genero identitatean nork daukan eragin handiagoari buruz galdetu zaie. Laginaren %44,9 batek eragile sozial guztiek eragin berdina dutela erantzun dute. Aldiz, eta azpimarratzekoa dena, irakasle askok familia eragin anitz duela adierazi du eta eskolak, ordea, eragin gutxi daukela erantzun du. Marko teorikoan adierazi denez, eskolak familia bezain eragin handia dauka eta biak berebiziko garrantzia daukate umearen genero identitatearen garapenean. Hortaz, esan daiteke gaiaren inguruan irakasle askok ezagutza gutxi dituztela eta gainera, euren erantzunkizuna besteei botatzen dietela.

## 5.2. Lanketa eta formakuntza

8. Klasean gaia lantzen duzu?

89 respuestas




Grafikoa 3: Klasean lantzea

Hurrengo grafikoan, klasean gaia lantzen edo ez duten lantzen jakiteko sortu da. Irakaslegoaren %50,6ak genero identitatearen inguruko lanketak egiten dituela adierazten du, %41,6ak, ordea, gelan gaia ez duela lantzen erantzun du. Beraz, irakaslegoak gaia klasean noizbait landu izan duela adierazten du. Adierazgarria da %7,2ak erantzun nahi ez duela esan duela, agian irakasle denbora luzez izan ez delako edo inoiz landu ez duela aitortzeak lotsa ematen diolako.

9. Gaia lantzeko formakuntza nahikoa jaso duzula uste duzu? (Unibertsitatean, EJ ematen dituen formakuntzetan...)

89 respuestas



Grafikoa 4: Jasotako formakuntza

Grafikoa honetan formakuntza jaso duten edo ez galdetu egin zaie eta ehuneko handi batek (%85,4) ezetz erantzun du. Hortaz, ehuneko gehienak ez du formakuntza jaso ez unibertsitatean, ez Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen formakuntzetan, ez bestelako formakuntzetan. Nabarmentzekoa eta deigarria da, aurreko grafikoarekin alderatuz, irakasle gehienek ez dutela formakuntzarik jaso baina gelan ikasleekin bai lantzen dutela adierazi dutela. Horrek hiru arrazoi izan ditzake. Batetik, euren kabuz formakuntza bilatu dutela eta horregatik gela baten barruan gaia landu dezaketela. Bestetik, gelan gaia lantzen dutela baino inolako formakuntzarik gabe eta hortaz inolako ezagutzarik gabe. Eta azkenik, gelan lantzen ez dutela aitortzeak lotsa ematen diela eta inkestan guztiz zintzoak izan ez direla.

## 1. TAULA: Irakasleen esperientzia maila eta formakuntzaren arteko barientza

T-Test: Two-Sample Assuming Equal Variances		
	Variable 1	Variable 2
Mean	1,325843	1,966292
Variance	0,472165	0,146578
Observations	89	89
Pooled Variance	0,309372	
Hypothesized Mean Difference	0	
df	176	
t Stat	-7,68112	
P(T<=t) one-tail	5,27E-13	
t Critical one-tail	1,653557	
<b>P(T&lt;=t) two-tail</b>	<b>0,000000</b>	
t Critical two-tail	1,973534	

Taula honen bitartez, esperientzia eta formakuntza alderatzeko egin da. Eraitza 0,5 baino txikiagoa izan denez, datuak esanguratsuak direla esan nahi du. Hortaz, datuak banan-banan aztertu eta esanguratsuak direla baieztatu eta gero, esan daiteke formakuntza jaso dutenen artean ehuneko altuena esperientzia gutxiko irakasleak izan direla. Hau da, unibertsitateko duela gutxi aterak direnek formakuntza handiagoa jaso dute.

## 2. TAULA: Formakuntza eta gaia gelan lantzearen arteko barientza


T-Test: Two-Sample Assuming Equal Variances		
	Variable 1	Variable 2
Mean	1,568182	1,955056
Variance	0,409091	0,157048
Observations	89	89
Pooled Variance	0,282349	
Hypothesized Mean Difference	0	
df	175	
t Stat	-4,84313	
P(T<=t) one-tail	1,4E-06	
t Critical one-tail	1,653607	
<b>P(T&lt;=t) two-tail</b>	<b>0,00</b>	
t Critical two-tail	1,973612	

Taula honen helburua, irakasle parte hartzaileen formakuntza inguruko emaitzak eta gelan gai lantzen duten arteko emaitzak konparatzea izan da. Konparaketa honen zergatia gaia lantzen eta formakuntza jaso dutenen artean konparatzea eta bi galderen

emaitzak esanguratsuak diren edo ez aztertzea izan da. Horiz dagoen emaitzari erreparatuz, esan daiteke esanguratsuak direla 0,5 baino txikiago atera delako.

10. Eskolak gai honen inguruan lan egiteko tresnak eskaintzen ditu? (Sexologia tailerrak umeentzako, gurasoentzako formakuntzak, irakasleentzako formakuntzak...)

89 respuestas




Grafikoa 5: Eskolaren laguntzak

Grafiko honetan, formakuntzei eta lantzeko laguntzei galdetzerakoan, %64 batek eskolak ez diela laguntzarik ematen adierazi dute. Eskolak ez du laguntzarik eskaintzen genero identitatearen inguruan lan egiteko zein formakuntza emateko orduan. Horrenbestez, zaila izango zen gela baten barruan gaia lantzea formakuntza izan gabe eta eskolaren laguntzarik gabe. Hala ere, laginaren parte hartzaile kopuru aipagarri batek gelan lantzen duela adierazi du.

11. Gai hau lantzerako orduan oztopoak daudela uste duzu?

89 respuestas




Grafikoa 7: Oztopoak lantzerako orduan

Galdera honen bitartez, irakasleen artean gaia lantzerakoan oztopoak aurkitzen dituzten jakiteko planteatu da. Oztopoak ez daudela %15,7ek erantzun dute, baietz daudela %80,9 handi baten kontra. Hau da, irakasle ia guztiek genero identitatea

lantzerako orduan oztopoak daudela esan dute baina hala ere, gelan ikasleekin gaia lantzen dutela aitortu dute.

12. Gustora sentitzen zara gai honen inguruan hitz egiten?

89 respuestas



Grafikoa 6: Gaiaren inguruan hitz egiterakoan

Galdera hau desehabilitate soziala ekiditu nahian sortu zen. Irakasle gehienek (%86,5) gustora sentitzen direla erantzun dute baina praktikan ez da guztiz horrela islatzen. Izan ere, ikasleek gai honi buruzko galderak edo zalantzak planteatzen dituztenean irakasleek lotsa edo erantzuteko gai ez direla sentitzen dute. Horrela beraz, parte hartzaileen artean politikoki zuzenak izan direlaren eta zintzotazunez jokatu ez dutelaren ebidentziak daude.

## 6. ONDORIOAK

Behin grafiko guztien emaitzak ondo analizatuta eduki eta T-student-ekin zenbait egiaztapen egin eta gero, hauen ondorioak idatzita ageriko dira hurrengo lerroetan. Ondorio hauek ateratzeko, 3. atalean azaldutako hipotesiak kontuan hartuko dira hauek baieztatuz edo ezeztatuz (Ikus. 3.atala: Helburuak. 21 or.).

### 1. hipotesia: Genero identitatearen inguruan irakasleek ez dute ezagutza handirik.

Hipotesi hau egiaztatzeko hurrengo bi azpi helburuak kontuan hartu dira eta jasotako emaitzak aztertuz, hipotesia baiezkotzat hartu dezakegu. Irakasle parte hartzaileen artean, gehiengo batek genero identitatea libreki eraikitzen ez dela argi dauka. Aldiz, eta ebidentzia honengatik egiaztatu daiteke irakasleek genero identitatearen inguruan ezagutza handirik ez daukatela, ehuneko handi batek eskolak genero identitatean eraginik ez duela erantzun du eta familiei egotzi diete eraginik handiena.

Marko teorikoan egindako erreferentziak kontuan hartuz, gure gizarteratze prozesuan balore eta jokabide zehatz batzuk ikasten goaz, gizarte-eragile desberdinak jokabide eta balore hauek transmititzeaz arduratuz eta patriarkatuaren genero rolak eta estereotipoak berproduzituz eta sendotuz (Espinosa, 2000). Eragile sozialek berebiziko garrantzia dute prozesu horretan eta eragin berdina dute umeen hazkuntza prozesuan presnetzia handia izanik. Eragile sozial horien artean familia, eskola, komunikabideak eta berdinen arteko harremanak daude. Hala ere, eskola eta familia genero estereotipoen erreprodukzioan indar handia daukate, umeen lehehengo urteetan sozializazio esparru nagusietariko bat dira eta (Menéndez eta Peña, 2009).

Horrenbetez, esparru bi hauek, beste eragileekin batera, izango dira umearen identitate sorkuntzan era beran eraginik handiena izango dutenak. Hortaz, esan dezakegu irakasleen artean ez dagukatela oso argi nola erantzen den genero identitatea eta zeintzuk diren genero identitatean eragina dituzten faktoreak eurek horietako bat izanik. Honek egiaztatzen du irakasleen artean ez dagoela nahiko ezagutzarik genero identitatearen inguruko gaien.

### **1.1. hipotesia: Irakasleek badakite genero identitatea ez dela libreki sortzen.**

Irakasleek genero identitatea libreki sortzen ez delaren hipotesia baiezkotzat ematen da. Horrela adierazi dute laginaren %84,3 batek genero identitatea libreki erakitzen den edo ez galdetu zaienean ezetz erantzunez (Ikus. 5.atala: Emaitzak. 24 or.).

Izan ere, ume baten generoa jaio aurretik jada baldintzatuta dago. Ume bat izango dugunean lehenengo galdera zein sexu biologikoa izango duen izanda, umearengan itxaropen, izaera eta jokaerak sortzen dira (Espinosa in Maccoby, 2000). Jaiotzean eragile sozial desberdinetatik genero estereotipoak jasotzen ditu, azkenean horiek berproduzituz eta generoa libreki ez eraikiz. Hau da, pertsona batek genero batekin identifikatzen den momentuan, gizarte eta kultura esartzen dizkion genero horren rolak eta estereotipoak betetzen hasiko da; gizon sentitzen bada gizonen rolak betez eta emakumea sentitzen bada emakumezkoen rolak betez (Jayme, 1999).

## **1.2. hipotesia: Irakasleek eskolari egozten diote genero identitatea libreki ez eraikitzea.**

Hipotesi hau gezurtzat ematen da. Genero identitate libreki erakitzen den galdetu zaienean ezetz erantzun dutenen artean zentratuz gero, ehuneko handi batek gizarte eragile guztiek eragin berdina dutela adierazi dute. Hortaz, irakasleen artean gehiengo batek eragile guztiei botatzen diete erru berdina. Bigarren ehuneko handienari erreparatzean, ordea, familiek eragin handiena dutela erantzun dute eta eskola, berriz, ehuneko txikiena jaso du (Ikus. 5.atala: Emaitzak. 25 or.). Aipagirria da beraz, eta emaitzei ondo erreparatuz, irakasle gehienek genero identitatearen garapena baldintzatuta dagoela jakinda, familiei erru gehiena botatzen diotela eta euren buruari garrantzia kentzen diotela. Eskolak familia bezala, genero identitatearen garapenean eragile sozial garrantzitsuenetarikoak dira eta estereotipo eta rolen transmititzaileak dira komunikabide eta berdinen arteko harremanekin batera.

Marko teorikoan ondo azaldu den bezala, gure gizarteratze prozesuan pertsonak balore eta jokabide zehatz batzuk ikasten goaz. Gizarte-eragile desberdinak jokabide eta balore hauek transmititzeaz arduratzen dira eta patriarkatuaren genero rola eta estereotipoak berproduzitzea eta sendotzea eragiten dute (Espinosa, 2000). Espinosak (2000) gizarte eragileak honako hauek direla adierazten du: familia, komunikabideak, berdinen arteko harremanak eta eskolak. Hala ere, eskola, familiarekin batera, genero estereotipoen erreprodukzioan indar handia dauka, izan ere, umeen lehenengo urteetan sozializazio esparru nagusietariko bat da (Menéndez eta Peña, 2009).

Ondorio bezala, gustatuko litzaidake aipatzea, genero identitatea libreki sortzen ez dela badakitela baina errua besteei igortzen dietela, ez ikusiz ume batek bere egunean zehar ia zortzi ordu ematen dituela gela baten barruan. Hortaz, irakasle batek umearengan eragin handia daukala eta modu kontziente zein inkontziente batean neskak eta mutilak desberdin tratatzen dituela, genero identitatearen garapenean modu negatibo batean eraginez (Menéndez eta Peña, 2003).

## **2. hipotesia: Irakasleek genero identitatearen inguruan ez dute formakuntza aipagarririk jaso.**

Hipotesi hau baiezkoa da, izan ere, laginaren %85,4 batek ez duela inolako formakuntzarik jaso erantzun du (Ikus. 5.atala: Emaitzak. 26 or.). Hortaz, irakaslegoaren gehiengoak esan du ez unibertsitatean, ez Eusko Jaurlaritzak ematen dituen formakuntzetan, ez beste formakuntzetan ez duela formakuntzarik jaso gai honen inguruan.

Hipotesi larria da, formakuntzarik gabe ezinezkoa delako inkontzienteki berproduzitzen duguna eta eragiten duguna modu kritiko batean hasunartzea. Horrela beraz, garrantzitsua da irakasleek kontzientzia hartzea eta gaiaren inguruan formakuntza jasotzea. Horrek Hezkuntza Fakultateen konpromesua eta ikasturteko programazioetan unibertsitateko irakasleek generoaren trataerari buruzko gaiak gehitzea eskatzen du (Bolaños eta Jimenez, 2007).

Gainera, formakuntza on bat zenbait tresna ezberdinak izatea eta klasean landu ahal izateko aukera ematen du (Bolaños eta Jimenez, 2007). Horrela irakasleek kontzientzia handiagoa eta gai lantzeko motibazioa izango zuten. Formakuntzarik ez izateak eragin negatiboak ekartzen ditu umeengan eta egiten dituzten lanketak guztiz esanguratsuak ez izatea.

### **2.1. hipotesia: Esperientzia gutxiko irakasleek genero identitatean formakuntza gehiago dute.**

Hipotesi hau egia da, izan ere, 3. taulan ikusi daitekenez atera diren emaitzen aldaera esanguratsua da. Datuen emaitza formakuntza jaso duten irakasle ia guztiek duela gutxi unibertsitateatik ateratako irakasleak direla da (Ikus. 5.atala: Emaitzak. 27 or.). Beraz, baiezkotzat hartzen da eta esperientzia gutxiko irakasleek genero identitatean formakuntza gehiago dutela esan daiteke. Hau da, magisteritza eskoletan genero identitatearen inguruko lanketak gehitzen eta gaur egungo gizarteak eskatzen dituen beharretara moldatzen doaz.

Unibertsitatean praktikak egiterako orduan, irakasle batek daukan eragina aztertzeko eta hausnartzeko aukera ematen dute. Praktikei esker, irakasleek dituzten jarrerak ikusi daitezke eta horiek modu kritiko batean hausnartu daitezke. Gero, Practicum lanean egiten diren hausnarketa eta behaketa idatziak gure formakuntzarako baliogarriak dira, baita gu izandako jarrerak modu kritiko batean hausnartzeko ere. Horrela, jarrera horiek berproduzitzea ekiditu egingo du eta etorkizuneko irakasleek jarrerak modu kritiko batean hausnartzeko erraztasun gehiago izango dute (Tinning, 1992)

### **3. Irakaseak ez dute genero identitatea bere ikasgaieen barruan lantzen.**

Hipotesia hau ezezkoa da, parte hartzaileen erdia gelan gaia lantzen dutela erantzun dutelako. Hau da, laginaren erdiak gelan genero identitatea lantzen dutela esan dute %41,6 baten kontra, ez dutela lantzen erantzun dutela (Ikus. 5.atala: Emaitzak. 25 or.).



Aipagarriena da, formakuntza jaso dutela edo ez dutelarekin konparatuz, ehuneko altu batez formakuntza jaso ez duela esan dutela baina gelan lantzen dutela argudiatu dute. Horrela beraz, bi erantzunak konparatu izan dira T-student datu analisisien formularen bitartez eta aldaerak esanguratsuak direla adierazi du (Ikus. 5.atala: Emaitzak 27 or. ). Hau da, aldaera handia dagoela bi erantzunak konparatzean, irakasle askok formakuntza jaso ez duela eta gelan lantzen dutela erantzun dutelako. Hortaz, parte hartzaile gehienek ez dute formakuntzarik jaso baina gaia lantzen dutela argudiatu dute klasean inolako ezagutzarik gabe.

Marko teorikoarekin lotuaraziz, ikertu egin da irakasle gehienek ez dutela generoaren inguruko inolako formakuntzarik jaso eta ondorioz, irakasle gehienek pentsatzen dutela generoaren gaia lantzea ez dela beharrezkoa eta emakume eta giznon arteko berdintasuna duela asko lortu zela (Anguita eta Torrego, 2009).

## **ONDORIO OROKORRA**

Emaizta guztiak kontuan hartuz eta hipotesiak ondo aztertu eta gero, ondorio orokor bat atera daiteke. Ikerketa txiki honen bitartez egiaztatu daiteke, gaur egungo irakasleagoak generoaren inguruko formakuntzarik jaso ez duela eta ondorioz, gaiaren inguruan ezagutza minimorik ez dutela. Hala ere, gehiengo batek gela barruan gaia lantzen dute.

Horrenbestez, esan daiteke formakuntzarik gabe eta ezagutza minimorik gabe, gaia lantzerakoan ziurrenik modu oker batean egingo dutela. Izan ere, emaitzetan islatu den bezala, irakasleen artean uste da eskolak ez duela eragin negatiborik ikaslearen genero identitatearen garapenean eta modu berean, irakasleek ikasleen genero identitatean eragin handia ez dutela uste dute.

Honekin ondorioztatu daiteke, irakasleek seguruenik, genero rola eta estereotipoak transmititzen jarraitzen dutela, sistema patriarkalen mesedetan eta inolako ikuspuntu kritikorik gabe. Etorbizun batean gauzak aldatu daitezten, ezinbestekotzat jotzen da Magisteritza eskoletan generoaren inguruko formakuntza ikasgaietan gehitzea etorkizuneko irakasleak gradutik ezagutza minimo batzuekin atera daitezten. Horrela ikuspuntu kritikoa garatzeaz gainera, gaia lantzeko tresna izango dituzte eta umearen genero identitatean eragin negatiborik ez dute izango. Hala ere, ondorioztatu daiteke, gaur egungo ikasleak magisteritza eskoletatik formakuntza gehiagorekin ateratzen direla eta horrela beraz, gauzak apur bat aldatu egin direla.

## EMAITZAK ETA ONDORIOAK LABURBILDUZ

HELBURUAK	HIPOTESIAK	EMAITZAK
Genero identitatearen inguruan irakasleek duten ezagutza maila aztertzea.	Genero identitatearen inguruan irakasleek ez dute ezagutza handirik.	✓
Irakasleek genero identitatea modu aske batean eraikitzen den edo ez ikustea.	Irakasleek badakite genero identitatea ez dela libreki sortzen.	✓
Irakasleek nori egozten diote generoaren identitate libreki ez eraikitzea ikertu.	Irakasleek eskolari egozten diote genero identitatea libreki ez eraikitzea.	✗
Irakasleak genero identitatearen inguruan formatuak dauden ezagutu.	Irakasleek genero identitatearen inguruan ez dute formakuntza aipagarririk jaso.	✓
Formakuntza maila irakasleen esperientzia mailarekin bat datorren aztertu.	Esperientzia gutxiko irakasleek genero identitatean formakuntza gehiago dute.	✓
Irakasleak genero identitatea beraien ikasgaietan lantzen duten edo ez aztertu.	Irakasleek ez dute genero identitatea bere ikasgaien barruan lantzen.	✗

### AZKEN EMAITZA

Emaitza guztiak kontuan hartuz eta egiaztatu eta ezeztatutako hipotesi guztiak aztertuz, esan daiteke irakasleek formakuntzarik gabe eta oinarrizko ezagutzarik gabe gelan genero identitatearen gaia lantzen dutela. Hortaz, ezagutzarik eta formakuntzarik gabe lantzen dutenez, ziurrenik ez dute modu zuzen batean egingo eta genero estereotipoak eta rolak indartzen jarraituko dute modu inkontziente batean eta euren jarrerak modu kritiko batean aztertzen jakin gabe. Modu horretan, ikaslearen genero identitatearen garapenean eragin negatiboak egongo dira, modu libre batean haziz utzi gabe.

## 7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Gradu Amaierako Lan honi amaiera emateko, ezinbestekoa da lan honetan zehar aurkitu diren oztopoak azaltzea eta era berean, oztopo hauei zer nolako konponbidea eman zaien adieraztea. Bestalde, lan hau hobetzeko proposamenak ere izango ditu irakurleak ikusgai. Horretarako, lehenengo, lan hau idazten joan ahala izandako arazoak azalduko dira, arazo hauei emandako konponbideekin batera, eta azkenik, lan hau luzatzeko edota hobetzeko zenbait proposamen azalduko dira.

Hasteko, onartu behar da ikerketa txiki honen parte hartzaileen gabezia aurkitu dela, izan ere, nahiz eta esperientzia zein arlo ezberdinetako irakasleak inkesta egin, soilik 89 irakasle hartu dute parte eta lagin eskas honekin emaitzak orokortzea ezinezkoa da. Honekin batera, ikerketa aberatsagoa izateko, gurasoei eta ikasle desberdinei bestelako inkestak egitea ondo egongo litzateke, beste ikuspegiak ikusi ahal izateko eta informazio gehiago biltzeko. Baina denbora eta laguntza faltagatik ezinezkoa izan da. Hala ere, nahiz eta lagina oso handia ez izan, parte hartzaile kopuru nahikoa bildu da ikerketa on bat egin ahal izateko.

Honen harira, inkestako galderak itxiak izan dira eta horren eraginez, emaitzak kuantitatiboak izan dira. Galderak horrelakoak izateak ondorio batzuk suposatu ditu. Beste batzuen artean, emaitzak zehatzak izan direla eta parte hartzaileen iritzia zehatza ezin dela jakin. Beraz, agian, galdera irekiren bat egitea ez lirateke txarto egongo emaitza kualitatiboak eskuratzeko, modu horretan emaitzak zehatzagoak izateko. Dena den, esan beharra dago, lagin hain handi batekin zaila dela galdera ireki asko egitea datuak biltzerako orduan.

Hari berdinean, ikerketa kuantitaboen bitartez, desehabilitate soziala egoteko arriskua dago. Hau da, parte hartzaileek sozialki ondo dagoena erantzutea eta ez benetan beraiek uste dutena. Gainera, desehabilitate soziala antzematea berebiziko zailtasuna dauka eta ikerketa oztopatu dezake. Hortaz, hobekuntza proposamenei dagokionez, ondo egongo litzateke gela ezberdinetara sartzea eta jarduera horiek nola egiten dituzten ikustea eta aldi berean, ikasleek zelan jokatzen duten aztertzea.

Atal honekin jarraituz, interesgarria izango litzateke genero identitatea lantzeko jarduera, tutoretza plana edota unitate didaktiko bat diseinatzea. Modu horretan, irakaslegoari gaia lantzeko materiala elarazi eta genero identitatea ikasgai desberdinetan gehitzeko tresna desberdinak eskuratu ahal izando zuten. Hala ere,

nahiko zaila iruditzen zait horrelako proiektu bat aurrera eramatea eskola bateko irakaslea ez izanda.

Bukatzeko, garrantzitsua iruditzen zait aipatzea irakasle izango naizen heinean, ikerketa hau burutu eta gero, garrantzi handia emango diodala genero identitatea lantzeari eta batez ere, ni irakasle moduan ditudan jarrerak hausnartzeari eta zuzentzeari zuzenak ez direnean. Modu berean, irakasle gehienek formakuntza eskasak arritu egin nau eta honi erreferentzia eginez, egongo litzateke formakuntza hauek egiten dituzten pertsonen ere elkarriketaren bat egitea, esate baterako berritzeguneko irakasle bati edota unibertsitateko irakasle bati.

## 8. BIBLIOGRAFIA

- Acaso, M. & Neure, S. (2005). El currículum oculto visual: aprender a obedecer a través de la imagen. *Arte, Individuo y Sociedad* 18. 205-2018.
- Acevedo Pierart, C. G., & Rocha Paves, F. (2011). Learning styles, gender and academic performance. *Journal of Learning Styles*, 4(8), 71-84.
- Acker, S. (1995). *Género y educación: reflexiones sociológicas sobre mujeres, enseñanza y feminismo* (Vol. 1). Narcea Ediciones.
- Ajamil, M; Fuchs, N. & Lucini, S. (1990). *Taller de educación no sexista*. Madrid: Cruz Roja Juventud.
- Alario, M. T. (2013). *Persona género y educación*. Salamanca: Amaru Ediciones.
- Benería, L. (2005). *Género, desarrollo y globalización: por una ciencia económica para todas las personas*. Hacer.
- Bolaños, L. M. & Jiménez, R. (2007). La formación del profesorado en el género. *Revista de Investigación Educativa*. Volumen 25 (1). 77-95.
- CEAR. (2019). Comisión de Ayuda al Refugiado. Recuperado en: <https://www.cear.es/?s=identidad+de+genero>
- COMISIÓN EUROPEA. (2007). *La Legislación en Materia de Igualdad de Género en la Unión Europea*. Recuperado en: [https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=2&ved=0ahUKEwjPneGGMOPMAhXBhRoKHdMDnoQFggkMAE&url=http%3A%2F%2Fec.europa.eu%2Fsocial%2FBlobServlet%3FdocId%3D2056%26langId%3Des&usg=AFQjCNFSSXsTODsnfI0SsDCJaZhcNZmTg&sig2=\\_13v5QTKb0zkXMMb4Z0StQ&bvm=bv.122129774,d.d2s &cad=rja](https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=2&ved=0ahUKEwjPneGGMOPMAhXBhRoKHdMDnoQFggkMAE&url=http%3A%2F%2Fec.europa.eu%2Fsocial%2FBlobServlet%3FdocId%3D2056%26langId%3Des&usg=AFQjCNFSSXsTODsnfI0SsDCJaZhcNZmTg&sig2=_13v5QTKb0zkXMMb4Z0StQ&bvm=bv.122129774,d.d2s &cad=rja)
- Conway, J., Bourque, S., & Scott, J. (1996). El concepto de género. *El género: la construcción cultural de la diferencia sexual*, 21-33.
- De Beauvoir, S., & Parshley, H. M. (1953). *The second sex*. New York: Vintage books.
- De Miguel, A. (2015). "Reacción: la vuelta al rosa y el azul", en DE MIGUEL, Ana, *Neoliberalismo Sexual*. El mito de la libre elección, Madrid: Ediciones Cátedra (pp.55-88)
- EMAKUNDE (2008). *Los hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades*. EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer.

EMAKUNDE (2015). EMAKUNDE – Instituto Vasco de la Mujer. Eusko Jaurlaritza.

Recuperado en:

<http://www.emakunde.euskadi.eus/emakunde//informacion/emakunde-instituto-vasco-de-la-mujer/>

Espinosa, M. (2000). *La construcción del género desde el ámbito educativo: una estrategia preventiva*. Madrid: Universidad Autónoma de Madrid.

Estébanez, I. & Vázquez, N. (2013). *La desigualdad de género y el sexismo en las redes sociales*. Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurjaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Servicio central de publicaciones del Gobierno Vasco.

Guerra, M. Á. S. (2002). *Currículum oculto y construcción del género en la escuela*. Universidad de Málaga. Recuperado de: [http://catedraunescodh.unam.mx/catedra/CONACYT/07\\_CursoBasicoResConflict2011/Contenidos/BIBLIOGRAFIACOMPLEMENTARIA/2\\_curriculumocultoyconstrucciondelgeneroenlaescuela%20Santos%20Guerra](http://catedraunescodh.unam.mx/catedra/CONACYT/07_CursoBasicoResConflict2011/Contenidos/BIBLIOGRAFIACOMPLEMENTARIA/2_curriculumocultoyconstrucciondelgeneroenlaescuela%20Santos%20Guerra).

Jayme Zaro, M. (1999). La identidad de género. *Revista de psicoterapia*, 10(40), 6.

Lamas, M. (2000). Diferencias de sexo, género y diferencia sexual. *Cuicuilco*, 7(18), 0.

Lamas, M. (2007). El género es cultura. *España: OEI*.

Leiva, P. G. (2005). Identidad de género: modelos explicativos. *Escritos de psicología*, (7), 71-81.

Martínez, I.I (2005): *Actualización de conceptos en perspectiva de género y salud*.

Recuperado en:

[http://www.msssi.gob.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/pdf/eguidad/presentacion\\_PFFPGS.pdf](http://www.msssi.gob.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/pdf/eguidad/presentacion_PFFPGS.pdf)

Martínez, R. A., & Egido, L. T. (2009). Género, educación y formación del profesorado. Retos y posibilidades. *Revista interuniversitaria de Formación del profesorado*, 23(1), 17-25.

Martori, M. S. (1994). Conquistar la igualdad: la coeducación hoy. *Revista iberoamericana de educación*, 6(1), 49-78.

- Morrison, M. M., & Shaffer, D. R. (2003). Gender-role congruence and self-referencing as determinants of advertising effectiveness. *Sex roles*, 49(5-6), 265-275.
- Muñoz, L. M. B., & Cortés, R. J. (2007). La formación del profesorado en género. *Revista de investigación Educativa*, 25(1), 77-95.
- OMS. (2019) OMS – Organización Mundial de la Salud. Recuperado en: <https://www.who.int/es>
- Puleo, A. (2007). Introducción al concepto de género. En F. Plaza, J. Delgado, Carmen (eds.), *Género y comunicación*. (pp. 13-33). Madrid: Fundamentos.
- Puleo, A. H. (2013). El concepto de género como hermenéutica de la sospecha: de la biología a la filosofía moral y política. *Arbor*, 189(763), 070.
- Puleo, A. (2013). Algunas reflexiones sobre género y persona. En M. T. Alario, C. Colmenares (eds.), *Persona género y educación*. (pp.23-30). Salamanca: Amaru Ediciones.
- Ramirez, C. (2008). Concepto de género: Reflexiones. *Revista de la Facultad de Educación de Albacete*. (23), 307-314.
- Rodríguez Menéndez, M. D. C., & Peña Calvo, J. V. (2009). *La investigación sobre el género en la escuela: nuevas perspectivas teóricas*.
- Rocha Sánchez, T. E. (2009). Desarrollo de la identidad de género desde una perspectiva psico-socio-cultural: un recorrido conceptual. *Interamerican Journal of Psychology*, 43(2), 250-259.
- Salas García, B.(1997). *Modelo para hacer la guía de igualdad en los centros educativos*. Gasteiz: Emakunde
- Scott, J. W. (1986). *El género: una categoría útil para el análisis histórico*.
- Serbin, L. A., Powlishta, K. K., Gulko, J., Martin, C. L., & Lockheed, M. E. (1993). The development of sex typing in middle childhood. *Monographs of the society for research in child development*, i-95.
- Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: La coeducación hoy. *Revista Iberoamericana De Educación*. Volumen I (6).
- Tinning, R. (1992) *La educación física, la escuela y sus profesores*. Valencia: Universidad de Valencia.

Tome, A. (2010). Reflexionemos sobre el valor de tener en cuenta la coeducación cuando enseñamos a convivir en la escuela. *Emakunde*, 1-5.

Torres, G. M<sup>a</sup> C., En Arjona, (eds.). Colección de Materiales Curriculares. n.d.



## 9. ERANSKINAK

### 1. INKESTA

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSe9WSeKSzIjoS3vzG8grFtPhoEGTMuLN0sWDHoOtHW9WTZSA/viewform>



## Genero identitatea eskolan

\*Obligatorio

1. Zenbat urte daramatzazu irakasle bezala lan egiten? \*

- Urte gutxi (0-5)
- Urte nahiko (5-10)
- Urte asko (15 urtetik gora)

2. Zein da ikasturte honetan zure irakasle eginkizuna? \*

- Tutorea
- Ingeleseko irakaslea
- Gorputz Hezkuntzako irakaslea
- PT
- Musikako irakaslea
- Heziketa bereziko irakaslea
- Praktiketako irakaslea
- Plastikako irakaslea
- Koordinatzailea
- Erligioko irakaslea
- Beste batzuk (Zuzendaria, jantokiko arduraduna....)

3. Generoa kontuan hartuz, nola definituko zenuke zure burua? \*

- Gizona
- Emakumea
- Transexuala
- Intergeneroa
- Transgeneroa
- Ageneroa
- Bigeneroa
- Ez dut erantzun nahi
- Otro: \_\_\_\_\_

4. Sexua kontuan hartuz, nola definituko zenuke zure burua? \*

- Emea
- Arra
- Ez dut erantzun nahi

5. Txikitatik zein sexu esleitu dizute? \*

- Emea
- Arra
- Ez dut erantzun nahi

6. Uste duzu txikitatik gure genero identitatea libreki eraikitzen dela? \*

- Bai
- Ez
- Ez dakit

7. Umearen genero identitatearen eraketan eragile sozial desberdinek eragin handia dute. Hauen artean zein uste duzu dela eragin handiena duena? \*

- Familia
- Berdinen arteko harremanak
- Komunikabideak
- Eskola
- Denek eragiten dute era berdinean
- Ez dakit

8. Klasean gaia lantzen duzu? \*

- Bai
- Ez
- Ez dut erantzun nahi

9. Gaia lantzeko formakuntza nahikoa jaso duzula uste duzu? (Unibertsitatean, EJ ematen dituen formakuntzetan...) \*

- Bai
- Ez
- Ez dakit

10. Eskolak gai honen inguruan lan egiteko tresnak eskaintzen ditu? (Sexologia tailerrak umeentzako, gurasoentzako formakuntzak, irakasleentzako formakuntzak...) \*

- Bai
- Ez
- Ez dakit

11. Gai hau lantzerako orduan oztopoak daudela uste duzu? \*

- Bai
- Ez
- Ez dakit

12. Gustora sentitzen zara gai honen inguruan hitz egiten? \*

- Bai
- Ez
- Ez dut erantzun nahi

## 2. INKESTA BIDALTZEKO MEZUA

Kaixo! Hezkuntza eta kirol fakultateko ikaslea naiz eta nire Gradu Amaierako Lana aurrera eramateko zuen laguntza behar dut. GrAL-a ikerketa txiki bat da irakasleek genero identitatearen inguruan duzue formakuntzak ezagutzeko da. Horretarako irakasle bazara edo magisteritza ikasi baduzu, eskertuko nizuke inkesta hau betetzea. Eskerrik asko!

<https://docs.google.com/forms/d/1UnqywAivqgRhCZLVI4CH5qiGceOi8QwAv0BmLhhafsA/edit?usp=drivesdk>